



25 urte zugar sinesten | 25 años creyendo en ti

NAFARROAKO GIZAKIA HELBURU FUNDAZIOAK DATUAK ETA 25. URTEURRENA OSPATZEKO EKITALDIK AURKEZTU DITU

25 urte bete dituela-eta, Fundazioak hainbat ekitaldi egingo ditu aurten Nafarroa osoan. Ekitaldi horien artean, erakusketa ibiltari bat nabarmendu behar da. Heldu den asteartean inauguratuko dute, Nafarroako Kutxa Fundazioaren Civican zentro soziokulturalean.

Gaur, martxoak 9, asteazkena, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren egoitzan prentsurrekoa egin da, 2016 honetan Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioa sortu zela 25 urte beteko direla ospatzeko egingo diren ekitaldiak aurkezteko. 1991ko otsailaren 11z geroztik, Harrera programa abian jarri zenetik, mendekotasun arazoak dituzten pertsonak eta haien senitartekoei eskatzen duten arreta etengabeari aurre egiten dion laguntza-sare moduan sendotu da Fundazioa. Hori dela-eta, 2016 honetan, Fundazioak 25 urte hauetan gauzatu dituen programak eta lana gerturatuko dizkie herritarrei, Gizakia Helburu Fundazioko lehendakari José María Jiménez Nespereirak, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioko zuzendari Alfonso Arana Marquinak eta Aldatu programako zuzendari Kristina Illescagak adierazi duten moduan, hirurek parte hartu baitute prentsurrekoan. Era berean, ekitaldia baliatu dute hedabideei aurkezteko 25 urte hauetan landutako programen emaitzak eta eman dituzten arreten kopuruak. Zehazki, 6.500 arreta zuzen izan dira, senitartekoei emandakoak aintzat hartu gabe.

Erakusketa ibiltaria, oroitzapenezko ekitaldien ardatz gisa

Oroitzapenezko ekitaldietako pieza nagusietako bat Nafarroako hainbat tokitan ikusi ahal izango den erakusketa ibiltaria izango da. Erakusketa hori, lehenbizi, Nafarroako Kutxa Fundazioaren Civican zentro soziokulturalean jarriko da eta heldu den asteartetik aurrera egongo da ikusgai. Erakusketa interaktiboa izango da, eta bertan, zenbait eremutan, bisitariak ikusteko eta parte hartzeko aukera emango duten jarduera desberdinak egongo dira. Pieza nagusia, hain zuzen, 20tik gora taula dituen labirinto bat da. Taula horietan, Fundazioaren fase eta programa desberdinak egongo dira ikusgai, eta horrez gain, bi pertsonaiaren (Alicia eta Iker), haien senitartekoen eta ingurune sozialaren istorioen deskribapena egongo da, nerabegarotik helduaroa arte. Hartara, erakusketako bisitariak irtenbideak bilatzeko irteera desberdinak hartzeko aukera izango dute. Era berean, ordenagailuak dituen gune interaktibo bat egongo da, eta bertan aurkeztuko dira Fundazioak 25 urte hauetan izan dituen erronka nagusiak eta Gizakia Helburu proiektuan izan diren bost pertsonaren benetako lekukotasunak. Horiez gain, beste gune batzuk ere egongo dira.

Urteurrena ospatzeko egingo den beste jarduera bat "Arga ibaiaren ondoan egingo den paseo osasungarria" izango da. Maiatzaren 15ean izango da, eta



NAFARROAKO
GIZAKIA HELBURU
PROYECTO HOMBRE
NAVARRA

25 urte zugar sinesten | 25 años creyendo en ti

Uharten hasi eta Iruñeko Gazteluko plazan amaituko da. Ibilaldia alaitzeko, jolas- eta jai-jarduerak izango dira, musika eta beste ezusteko batzuk. Gainera, egun horretan bertan, “herri lasterketa” bat egingo da, Hiru-Herri Atletiko Taldearen lankidetzari esker. Zirkuitu itxia izango du, Gazteluko Plazan hasiera eta amaiera izango duena, “Arga ibaiaren ondoan egingo den paseo osasungarriko” parte-hartzaileekin bat egiteko.

Fundazioaren 25 urteen oroitzapenezko iragarkia

Prentsaurreko ekitaldian, gainera, ikus-entzunezko pieza bat aurkeztu da, erakusketa ibiltarian eta Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak dituen hedabide desberdinetan ikusi ahal izango dena. “Ezezagun talde bat elkartu genuen eta...” izenburua du iragarkiak eta bertan, ikuspegi baikor batetik, benetako sei istorioren lekukotasuna ikus daiteke. Aktoreek jokutzen dituzte paperak, eta erakusten dute nola gairitu dituzten mendekotasunak eta nola bizi diren egun. Nahi izanez gero, YouTuben ikus daiteke iragarkia, Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioaren atalean.